

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA



ERANSKINA: *LO QUE CUENTAN LOS CUENTOS: SOBRE EL SEXISMO DE LOS CUENTOS TRADICIONALES*

Maite ditut ipuinak. Ahozkotasunean hazi nintzen. Etengabe egon arren Errauskine, Basoko Loti Ederra, Edurnezuri eta antzeko profileko heroien eraginpean —eragin izugarri kaltegarrikoak denak—, hara non feminista atera naiz. Horregatik nahi dut orain eta hemen, hain laidoztatuak izan diren maitagarrien ipuinen alde egin eta herri-ipuinei egotzi zaizkien sexismo eta gainerako *ismo* guztien inguruan entzule aseegin eta kontalari profesional moduan dudak eskarmentua partekatu.

Egia da, imajinario kolektiboaren adierazpide eta ekoizpen kulturala diren neurrian, era guztietako balio baztertzailerik beteta daudela ipuin tradizionalak. Nola ez dira, bada, egongo? Bereziki susmagarria irudituko litzaidake, bestela balitz.

Duela zenbait hamarkada, ipuinak haurrentzat soilik zirela ulertuta (bere horretan, aurreiritzi bat gehiago), sustatzen zituzten genero-rolak eta estereotipoak salatu asmoz, herri-ipuinetako fikzioaren gainean jarri zuen lupa hezkidetzaren eremuan aritzen zen kritika feministak.

Garai hartan, honela zioen Grimm anaiek idatzitako *Edurnezuriren* bertsoak:

«Etxe hartan dena zen txikia, baina irudikatu daitekeena baino **politagoa eta garbiagoa**. Tximiniatik gertu, mahaitxo bat zegoen jarrita; zazpi plater oso txiki eta buztinezko zazpi kizaratxo zeuden bertan. Gelaren beste aldean zazpi ohetxo zeuden **txukun-txukun** lerrokatuta. —**Guretzako janaria prestatu, josi eta garbitu nahi baduzu**— esan zuten ipotxek—, hemen geratu zaitezke, eta beti zainduko zaitugu. Edurnezurik pozik onartu zuen proposamena. Oso alai bizi zen ipotxekin, **janaria prestatuz eta etxetxo zainduz**».

Psike kolektiboan eragin handiagoa eta sakonagoa izan duen Disney faktoriaren bertsoak (iruditan zenez) erremediorik gabe ordezkatu duen bertso tradizionalak ipotxek etxea polita, garbia eta txukun-txukuna dela adierazten digu. Zazpi «jakintsuak» zikin eta zabar bihurtzea izan da nire iritziz filmatutako bertsoaren perbertsiorik handienetakoa. Garai hartan ez nintzen horretaz jabetu ere egin. Gehiago gogaitzen ninduen Edurnezuri ipotx kuadrillarentzat gizarte segurantzarik gabe neskame lanetan aritzeak, eurek euren etxeko garbiketari ez laguntzeak baino.

Kontakizun klasikoan, ipuina transkribatu zen garaiko era eta ohiturekin bat zetorren ituna egiten dute ipotxek Edurnezurirekin. Ondorioz, gizon eta emakumeen zeregin-banaketa tradizionala agertzen da bertan. «Sexismo» hau, nire ustez, ez da beste batzuk bezain kaltegarria, ipuina entzun edo irakurtzen duten haurrek istorio bakoitzaren kokapen historikoa ezin hobeki bereizten ikasten baitute. Badakite jendeak ohitura batzuk zituela lehen eta beste batzuk dituela orain. Badakite landa inguruneetan eta lurra landuz bizi zela jende gehiena lehen, eta, orain, berriz, hiriguneetan. Jendeak eguzkiak lurraren inguruan biratzen zuela uste zuela lehen, eta, orain, badakigula alderantziz gertatzen dela. Ez? Laurogeigarren hamarkadan, gutako gehienok ez geunden (eta oraindik ere ez gaude) ados rol-banaketarekin, denbora luzea baikeneraman espazio publikoko «meatzera» joan nahian eta grina bete obario egiten genuen protesta.

Garai hartan, kontra egin zitzaion heroi haiei, pasibotasuna, salbatuko zituen norbaiten zain egotea, patuari beldurra izatea, esanekoak izatea edo txepelkeria zituztenez ezaugarri. Aitortzen dut: ni neu ere, desobedientziak irentsitako Txanogorritxuren kontrako manifestari sutsuetako bat izan nintzen «Baina, ama, ezezagunekin hitz egiten ez badut, nola ezagutuko dut inor?».

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

Genero-ikuspegi nabarmena zuen ipuin berri mordo batek, *Neska koskorren alde* bildumak edo Adela Turinen sorkuntza bikainek, esaterako, genero-rol tradizionalak irauli zituzten: itxura positiboa eman zitzaien sorginei, eta printze ameslari maitagarriak eta bizitzako helburu bakarria ezkontzea ez zuten printzesa ausartak txertatu zituzten imajinario kolektiboan.

Edunezuriren adibidearekin jarraituz, fikzioa manipulaturik mundua aldatuko nuen ustearekin, frogak egiten hasi nintzen. Heziketan militarizazioak bultzatuta, printzesa meatzera joaten zen bertsio bat probatu nuen; beste bertsio batean, baldintzatzaile biologikoen ondorioz etxeko mirabetzara kondenatua izanik, emakumearen estatusaren salaketa publikoa egiten zuen ipotxen etxean... Honelako zerbait zen Edunezuriren nire bertsioa garai hartan:

–Nahi baduzu, hemen gera zaitezke, eta **beti zainduko zaitugu**. Edunezurik erantzun zien: «Eskertzen dizuet zuen abegi ona, baina **nik badakit nire burua bakarrik zaintzen**. Zuen adeitasuna eskertzeko, **basora joango naiz ehizara, fruta bilduko dut eta meatzean lagunduko dizuet**».

Amaordea emakumea izatea, emakumeen arteko batasuna ekiditeko izaera androzentriko sakona zuen sistema baten asmakaria baino ez zela otu zitzaidan gero. Sorgina ez zela hain gaiztoa kontatzen nuela ohartu nintzenerako, ipuinak zeharo galdua zuen zentzua. Hain sustrai sakonak dituen ipuin batekin egin daitekeen okerrena egin nuen: kontatzeari utzi nion.

Barkatuko ahal didate gure amonek nire argelkeria eta errespetu eza! Politikoki zuzena denak gidatuta (eremu feministan politikoki zuzena dena gizar-tearentzat, oraindik ere, ez-zuzena bazen eta bada ere) eta inkontzienteki, inimizazio-prozesurako eta hazkunde pertsonalerako giltza ziren alderdiak ezabatu nituen ipuinetik. Imajinario kolektiboaren artelana panfleto didaktiko bihurtu nuen. Borondaterik onenaz egin nuen arren, erregea baino erregetiarrago eta sexismo sotil eta arriskutsuagoa adierazten bukatu nuen; urte mordoxka bat beranduago konturatu nintzen horretaz. Etxeko lanei lotua zegoena kontatzeko nuen moduari erreparaturik ohartu nintzen ideologia nagusiek gutxiesten zituen eran gutxiesten nituela tradizionalki emakumei esleitu zaizkien zainketa, samurtasuna edo sentimenduak adieraztea; balio gutxiagoko balioetatik hartzen nituen nik ere. Kontua zen emakumeek gauzatzen zituztelako balio zutela gutxiago, eta ez alderantziz. Horixe izan zen giltzarria niretzat, mota guztietako sexismoak indargabetzen saiatzeko.

Orditik aurrera, ipuinak kontatzerako orduan, pertsonaia femeninoek egiten zuten guztiari garrantzia ematea hartu nuen helburutzat. Emakumeek egiten zutena egiten zutela, niretzat, eta narratzaile bezala, garrantzitsua, baliozkoa eta aintzat hartua izango zen. Garai hartan, honelako zerbait zioen, gutxi gorabehera, Edunezuriren nire bertsioak:

«Edunezurik pozik onartu zuen ipotxen abegi ona, eta berekiko izan zuten adeitasuna saritzeko, **janaria prestatzen** eta **etxea zaintzen** laguntzen zien. Ipotxek harribitxi batzuk besteengandik bereizten irakatsi zioten, eta **berak gela garbi eta txukun baten edertasuna erakutsi zien**. **Ipotxek Edunezurirekin ikasi zuten ez dagoela mahai gainean jarritako gisatu gozo bat baino bitxi ederragorik**».

Ipuinetako gaiztoekin berradiskidetu nintzen, eta nire kontakizunetan haiek epaitzeari edo haien jokaera zuzitzeari utzi nion. Gaiztoak perfektuak direla ikasi nuen, horretarako nahikoa botere dutenak bakarrik jardun daitezkeela gaizto paperean. Bilau edo gaizto on bat dagoen lekuan ipuin bikain bat dagoela egiaztatu nuen, heroiaren maila morala edo kasta aurkariaren izaeraren arabera neurtzen baita.

Eta adinez nagusi egin nintzen, mila urte baino gehiagokoa, kontalari moduan. Ipuinak kontatzen lortu dudak esperientziari esker egiaztatu ahal izan dut, nola neskek hala mutilak, pertsonaia

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

nagusiarekin identifikatzen direla, berau emakumezkoa ala gizonezkoa izanda ere. Garai historiko bakoitzeko bertsoiek adierazten dituzten aurreiritzi eta gainazal estereotipatuetatik harago, protagonistaren barne bidaian murgiltzen dira haurrak. Ez dago estereotipoak ezabatu beharrik, onartu eta ipuinaren barruan irauli behar dira, bukaeran zer edo nor saritzen dugun balioesteko. Ipuinak ez direla xaloak konturatu behar gara, balioak transmititzen dituzte eta hezitzaileak dira guk hala nahi dugulako (eta nahi ez badugu ere bai). Adibidez, badirudi maila sinbolikoan eta psikoanalitikoan etxea «garbitu, txukundu edo konpontzea» norberaren psikea sendatu eta garbitzea dela. Edurnezuri etxea garbitzen hasten denean, ez du esan nahi erotuta dagoenik, ez eta betebeharrak sozialak otzan-otzan onartzen dituenik ere; sendatzera doa basoko etxera. Garbiketaren metafora esplizitu eginda, hauxe da gutxi gorabehera gaur egungo nire bertsoa:

«Edurnezurik pozik onartu zuen ipotxen abegi ona, eta berekiko izan zuten adeitasuna saritzeko, **janaria prestatzen eta etxea zaintzen** laguntzen zien. **Zoruan erratza pasatzen zuenean**, bere bihotzeko beldurrak ezabatzen zituen. **Sabaiko eta paretetako armiarma-sareak kentzen zituenean**, bere baitako gorrotoa eta erresumina garbitzen zituen. **Arropa josi eta apailatzen zuenean**, arima sendatu eta bere bizitza antolatzen zuen Edurnezurik».

Erruki ditut sexismoaren, arrazakeriaren edo bazterketa sozialaren aitzakian printzesa eta dragoiak ipuinik entzun gabe geratzen diren haur garaikideak. Monarkiaren aurkakoa naiz ni, baina horrek ez dit eragozten printzesen ipuinak kontatzea. Izan ere, ipuinetako printze-printzesek ez dute inolako zerikusirik klase politikoarekin. Printzesa da burujabe (bere izatearen erregina) izateko bidearen hasieran dagoen emakumea. Gure arimaren «noblezia» adierazten dute ipuinetako printze-printzesek eta errege-erreginek.

Ipuinez eta kontraipunez beteta dago ahozko tradizioa: Besteak beste *Asto larrua* edo *Albaka ureztatzen duen neskatoa* ipuinek, sexu gehiegikeriez ohartarazten dituzte haurrak, edo erresistentziatzko emakume ereduak aurkezten dizkigute. Bizitzarako argibide baliotsu eta zehatzez betetako ipuin mordo bat lapurtu dizkigute. Iritsi zaizkigun bertsoetako asko zentsuratik igarotako bertsoak dira, edo horrenbeste araztu dira, ipuinaren sakoneko espiritua ere galdu baitute. Izan ere, herri-kulturak denetariko ipuinak sortu ditu: ezkontzerik nahi ez duten printzesen ipuinak, beldur diren printzeei buruzkoa; puzkerrak botatzen dituzten heroiei buruzkoak edo bortxatu nahi izan dituzten horiei ipurtzulotik errefauak sartzen dizkietenei buruzkoak. Ipuin batzuetan, amaginarreba eta erraina elkarrekin ongi moldatzeaz gain, elkarren amorante bilakatzen dira. Arrantzale kuadrilla osoa —arrantza-ontzi eta guzti— bagina barruan sartzeko gai diren emakumeei buruzko ipuinak ere badira... Baina non daude ipuin eta bertso horiek? Heztea, hezkidetzea, gaur egun sekula baino gehiago, alternatibak bilatzea da; imajinario kolektiboko mitoei, izateko eskaintzen dizkiguten aukera guztiak bilatzea. Istorio bakoitzaren bertso bat baino gehiago (zenbat eta gehiago, hobe) ezagutzeko eskubidea dute gure hurrek; egiak geruza asko ditu, eta aniztasuna balio bat da.

Gai honen inguruko analisi ximpleegiarekin geratu nahi ez duenari, hertsiki gomendatzen diot irakurtzea Clarisa Pinkola Estésen *Mujeres que corren con los lobos* eta emakumeak protagonista dituen kultura guztietako ipuin bilduma bikaina osatu duen Angela Carterren *Capercuzas, Cenicientas y otras marisabidillas*.

Funtsean, zera da kontua: bihotzean daukaguna ezpainetatik ateratzen da. Hezkidetzarako, berriro hezi behar du nork bere burua. Kontatzen ari naizela, sexismoa eta gainerako *ismo* guztiak, nire hatsean, nire begiradan, nire isiltasunean... daude. Hitzetan ere bai, gaietan, gertakarien

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

edukietan, baina hori azala besterik ez da; ipuinaren zati ikusgarria, nolabait esateko. Era guztietako aurreiritziekin gertatzen den moduan, esplizitua ez denak asmo gaiztoagoa izaten du azpian, eta kontra egiteko zailagoa da.

Gauzak horrela, ipuin garaikideetan printzesarik eta dragoirik azaltzen ez den arren, egungo kontakizunak ez dira osagai sexistarik gabeak. Sorkuntza berrietan eta betiko ipuinak birsortzerakoan kontzientzia hartzea falta zaigu oraindik ere. Ongi dago begien bistan dagoena nabarmentzea eta kontakizunean agertzen diren pertsonaia femenino eta maskulino kopurua zenbatu eta euren protagonismo-maila ebatzea; ongi dago batzuen eta besteen bertute eta akatsetan arreta jarriz egitea deskripzio fisikoak, berrikustea pertsonaion harreman-eremuak, jarduerak eta lanbideak, aztertzea euren ezaugarri afektiboek zer genero-joera duten, negatiboki balioetsi ote diren, boterearen edo mendekotasunaren adierazle ote diren, etab. Istorioaren amaieran batez ere, garrantzitsua da zer jokabide saritzen den eta zer jokabide zigortzen den kontuan hartzea. Bistan denez, asko dago egiteko oraindik, baina bizitza, inolako ezberdintasunik gabeko bizitza-proiektu hori, beti datorkit kontura niri...

Virginia Imaz Quijera